



Babarrun festa handia atzo

IRABAZLEAK ▶ Albizturko Aberto Labakak irabazi zuen babarrunena; txapela Xabier Garikanok jantzi zuen ondoen Txinpartan

ENKANTEA ▶ Babarrun lehiaketan garaile irten zutenekin egin zuten; 1.700 eurotan saldu zen azkenean hiru kiloko zakutxoak ▶ 6-7



Azoka berezia. Babarrunaren laguntzaile izan ohi diren jakiak jarri zituzten salgai atzo azokan: txerriak, barazkiak, tripotxak, odolkiak... Baina bestelako produktu bereziak ere izan ziren Trianguloan. JAIONE ASTIBIA



Txapel lehiaketa. Xabier Garikanok irabazi zuen; Desiree Gonzalezek emakumezkoetan; Pedro Juan Oriak elkartekoan artean; Florentino Gastesik partaide zaharrenetan eta Lucia Aranzabek gazteenetan. I.A.



Babarrun lehiaketa. Albizturko Alberto Labakak irabazi zuen lehen saria; bere herrikoak ziren bigarrena eta hirugarrena ere. JAIONE ASTIBIA



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozeramikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilarriak	- Estantzaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 67 01 14 Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552 Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com



**jantzi
hitza**ren
jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Bertsolaritzaren etorkizuna nola ikusten duzu?

Nola ikusten dudana etorkizuna? Gaizki. 40 urtera ez naiz iritsi, baina bertsolari gazteek, salbuespenik gabe, aspertu egiten naute. Zaharrak gustura

entzuten ditut (Egaña, Lizaso etab. zaharren taldean sartzen ditut...). Bertsoa egiteko, aurrena azken puntua pentsatu beharra aspaldiko kontua da. Baina gazteek egiten dute: azken puntua pentsatu eta beste gutzia betelana. Eta horrela ez dago bertso onik.

▶ TOMAX

Euskal Herrian *reggaeton*-ak etorkizun gehiago du bertsolaritzak baino.

▶ MAIXU JOXE

Ez nuen espero horrelako erantzun ezkorrekin topatzen. Bertso maila goraka doa, Txapelketa Nagusiko finaleko txartela lortzea inoiz baino zailagoa da aurten. Andonik ere ez du erraza izango txapela defenditzea. Bertsolari gazte mordo ari da ate joka eta hauei irribide egokia ematea da gako. Hala ere, bertso saioetara gero eta zale gutxiago joateak zer pentsa ematen du, behar-

bada bertsolaritzari formatua aldatu eta herritarrengana, eta, batez ere, gazteengana iristeko formula egokia bilatu beharko litzateke.

▶ ETORKIZUN ONA

Maixu Joxe, zer diozu baino? Bertsolaritzak Euskal Herrian *reggaeton*-ek baino etorkizun gutxiago duela? Zuk ba al dakizu *reggaeton* nola dantzatzeko? Bertsolaritzak ez dakit zer etorkizun duen, eta, egia esan, ez dit gehiegi axola, nahiz eta batzuetan gogoko dudana. Orain, inongo zalantzarik ez dut Euskal Herrian *reggaeton*-ak etorkizunik ez duela, ez bada etorkinen artean, eta niri *reggaeton*-a ikaragarri gustatzen zait, inoiz aritu gabe, noski, ea nor atrebizten den hemen horrelakorik egiten, ezta emaztearekin ere, belarriondokoa Bedaiotik entzungo lukete. Eta hori Donostiako irakasle batek esateak bai arritzen nauela, non eta Donostian *reggaeton*? Maixu Joxe, ez inoiz Donostian ligatzen saiatu, motel, motel... Donostian ezta *Larraidantza* ere.

▶ RONY GUADALAJARA

Gure Irratia Bidegurutzean

Sostengu kantaldia, 2005eko urriaren 29an iragan zena, orain DVDan eskuragarri



Parte-hartzaileak:

- Pili Pil taldea
- Maialen Errotabehera
- Anje Duhalde
- Eperna taldea (Niko eta Dominika Etxart, eta Robert Larrandaburu)
- Kattalin Indaburu
- Karolina Philips
- Unama taldea
- Xabaltx
- Amaren Alabak

AZAROAREN 29ean

berria +5,95€

Euskaldunok behar dugun **berria**

TEKNIKARIA BEHAR DA

• UNIBERTSITATE TITULOA
• EGA

• B1 GIDABAIMENA

BALORATUKO DA:
HERRI TXIKI ETA AGENDA
21en EZAGUTZA

CURRICULUM-ak,
ABENDUAK 2rako
TOLOMENDI
293 P.K. • TOLOSA



Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANO

Hiru adartxo ziztrin



Gure etxeko telebistan, orain egun gutxi, txapela berezi bat agertu zeneko gaua dut gogoan. Txapela berezi bat, ondoko gizon mazakote bat zuela. Hiru adartxo dituen txapela, adar txikiak, noski, inori arriskurik sortzeko aukerarik gabea. Dizdira berezia zuen txapela hark, zapatak lustratu ordez buru gainean jardun zuen nonbait gizonak denbora luzez. Lustrea eta gizon ilustrera, txapela beltz horren ondoko zuri hitz egiten zekiena.

Hain zuri hitz egin erel! Orain zer da eta, inor atxilotutakoan Lizardiren poemak errezitatzen omen dizkiote. A, baino, inor atxilotzen al dute, bada? Alajaina! Ugarte inguruan autoak gelditu arazten dituztenean agurra dantzatzeko omen diote, armaren ordez zahartoa bizkarrean hartuta; dotore jantzia, ez kardabera kolore horrekin. Gainera, amaieran, 'ciga uté' esan ordez 'eongoatxik' jatort bat askatzen omen dute beren hortzetatik.

Tolosan duten etxera, inor agiri baten bila azaldu beharrean gertatzen bada, saltokak txoratzen joaten omen da; izan ere, 'Gure Aberria, Euskal Herria' dioen haritz egurrezko ongi etorria ageri baita atarian. Zain egoten omen da beti norbait, irribarretsu, euskaratu berri dituen dokumentu artean, bertsotan.

San Mamesera maiz inguratzeko dela zioen; noski, urte amaierarako ere Euskal Selekzioa animatzera joateko autobusa antolatuta omen dute. Hor abiatuko dira ahal duten guztiak, esku batean bokadiloa eta bestean ikurrina hartuta. Egun nekagarria suertatzen bazaie, ez dago arriskurik, bainerak hidromasajerako erabiltzen baitituzte. Zertarako bada, bestela?

Adarrak adar, ez kezka eta ez dar-dar. Kitto, bukatu dira egun lainotsuetako betarrekoko beltzak, gaueko atehotsaren izuak eta 'cómo ha dixo uté?' guztiak. Pena hartu beharko dugu inoiz joaten badira, gainera. Adar kontuak izango dira. Adar jotze hutsa, alegia.

IRUDI ZAHARRA ▶



TOLOSAKO MUSIKA BANDA



Musika Banda 1963ko Santa Zezilian

Joxemi Saizar ▶ Tolosako Musika Bandak historia luzea du. Azaroaren 22an bere patroia Santa Zezilia dela eta, urtero ekitaldi ugari antolatzen ditu. Atzo bertan egur eta metal soinu tresnen arteko futbol partidua eta mus eta tute txapelketak izan zituzten; gaur 12:30ean kontzertua Musika Eskolan Udal Txistulari Bandarekin batera eta ondoren bazkaria, eta asteartean 20:30ean kalejira Alde Zaharrean. Argazki zahar honetan 1963ko Santa Zezilia futbol partiduko jokalaririk ikus daitezke Berazubiko zelaian, egur soinu tresnetako musikariak kamiseta argiz eta marra diagonalarekin eta metalekoak kamiseta iluna

rekin. Goian, ezkerretik hasita, Santi Balza, Jose Frades, Jose Mari Zunzunegi, Gerardo Garcia, Francisco Esnaola, Miguel Angel Martinez eta Jose Luis Gorostegi. Hurrengo lerroan, Jesus Larrauri, Bernardino Legarra, Antonio Crespillo, Tomas Arnal, Miguel Santamaria, Miguel Valmaseda, Juan Colmenero, Miguel Pildain eta Luis Mari Garcia. Aurrean, Paulino Arruti eta Manuel Valmaseda. Makurtuta, atzean, Manolo Larrañaga (epailea), Juan Jose Garmendia, Miguel Gorostidi, Jose Martin Martinez, Carlos Garcia eta Jose Mari Lampreabe. Aurrean, Pascual Garces, Amado Ortiz, Ignacio Balza eta Jose Mari Mendibil.

GUTUN@K ▶

Aurrerantz ala atzerantz?

Ernio inguruko hainbat herririk Udaltalde 21 izeneko elkarlan bat sortu dute herri hauen garapen soziala, ekonomikoa eta ingurugiroarena emateko. Egia esan behar bada, asmoa ez da txarra, herritarren partehartzea bultzatzen baitu. Baina, nola ez, betiere Udalaren eta alkatearen presentzia nabarmenarekin. Nolabait esateko, garaiak aldatu badira ere, XIX. mendeko despotismo ilustratuen antz pixka bat badu

(dena herriarentzat baina herrikerik gabe).

Hala, Zizurkilen ere, egin zen lehengo herri biltzarra. Bertan bildu ginen gehiengoak euskaldunak baginen ere, hitz egin behar zuena gazteleraz mintzatu zen, nonbait bertan euskara ez zekiten gutxi batzuk ere bazeuden. 10 bat minutu igaro izango ziren euskaraz hitzik egin gabe eta batek esandakoa euskaraz errepika zezakeen galdetu zion. Bere erantzuna ezezkoa izan zen. Pertsona batzuk erderaz hitz egiteko eskatu ziotela eta erderaz hitz egingo zuela.

Aitortzekoa da Zizurkilen ba daudela zizurkiladarrak izanagatik ere euskara ez dakitenak eta herriaren parte direna. Eta hauei ez diet, nik, errurik botatzten. Baina herri baten garapeneri buruzko Herri Batzar batean, gehiengo euskaldun izanda, lotsagarria iruditzen zaigu eskubide zapalketa hau. Herri-tarren eskubide zapalketak dauden bitartean herria ez da garatuko, aurkako bidea hartuko du, atzerantz doan bidea, gure ama hizkutzak galtzera bideratuz.

URTZI REGUERO ▶ ZIZURKILGO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik

15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendora eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Harreragileak. Harreragile-telefonista. Udaleketearako plaza libreak. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldari laguntzailea. Sukaldari laguntzailea, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.



GIPUZKOAN GAUDE :

- **Andoain**
Kale Nagusia, 19
- **Arekabaleta**
Bilakua Etorbidea, 31
- **Azrasate**
Amasate Pasealekua, 35
Doctor Barler, 12
Vinea Etorbidea
- **Azkeitia**
Kale Nagusia, 72
- **Azpeitia**
Plaza Txikia
- **Beasain**
Gernika Pasealekua
- **Bergara**
Plaza San Martin Aguirre
Amelaga, 21
Bide Kurutzeta, 6
- **Billabona**
Errota, 6
- **Deba**
Gistolara, 3
- **Donostia**
O'Donnell, 10
Iparragirre, 15
31 Agosto, 40
Konstituzio Plaza, 11
Elkano
Mafia, 44
Secundino Esnaola, 30
San Francisco 31
Nafarroa Etorbidea, 8
Segundo Ispizua, 19
Ganbay, 7 - 3
Pescadores De Terranova, 5
Carlos I., 11
Residencia - Amara (Serrera)
Bar Autobusak - Amara
P. Zaratogi, 52 Lib. Clara
Gorbera Merkatal gunea
Birmingham
Madrid Etorbidea Eskina Isabel
Jose M. Salaberria, 9
Felipe IV, 8
Atzagometa Etorbidea, 71
Felipe IV, 6
Peña eta Goli, 15
La Bretxa Merkatal Gunea (C)
Askatasunaren Etorbidea, 30
Ducque De Mandas, 9
Ducque De Mandas, 48
Dr. Beguiristain, 271 - Miramon
Anskar Etorbidea, 34
Anskar Etorbidea, 50
Larraxo Pasealekua, 39
Borrito Lokaleko Pasealekua, 2
- **Eibar**
Plaza Urquiza
Plaza Urzaga Kiosko
- **Elgoibar**
Urrozti, 16
- **Ernea**
Gipuzkoa Etorbidea, 46
- **Getaria**
Elkano, 7
- **Hernani**
Kiosko Circo-Ereia
- **Hondarribia**
Zozan Plaza
- **Ibarra**
P. Idoyaga, 5
- **Idiazabal**
Plaza Nagusia, 5
- **Irua**
MP Juncal Labandibar, 5
Luis De Utrana, 12
Santiago Nazioarteko Zubia
Villaverde Vallecas, 3. km
Pequito Echeveste, 3
Plaza San Juan
Kiosko Plaza Emsanche
- **Legazpia**
Aizkorri, 2
Industriarena Villedaperra
Etorbidea, 29
- **Legorreta**
Kale Nagusia
- **Lizartza**
Tsumirako Bidea
- **Matxiko**
Padre Modesto Tsumirka, 8
- **Oñartzan**
Alcampo Merkatal gunea
Industriarena, Villedaperra
Etorbidea, 29
- **Olaberria**
Industri Gunea 201, Igoite
Etorbidea
N-1, 392. km - 3e
- **Oñati**
Lopez De Lazarraga, 3
Oñati Barria
- **Oñereta - Erremeria**
Santa Clara, 6
Martiri Etxeberria, 8
Aierbeiko Eskina
- **Orio**
Aretzaga, 5
- **Ormaiztegui**
Majika Plaza, 3
- **Pasaia Antxo**
Nafarroa Etorbidea, 16
Zumalakaregi, 8
- **Pasaia San Pedro**
Gomeztegi, 1
- **Tolosa**
San Frantzisko ibiltokia, 8
- **Zarautz**
Forren, 12
- **Zumarraga**
Piedad
Secundino Esnaola, 3

- Zure ikastetxean banatu nahi duzu ?
- Zure kioskoan eskuratu nahi duzu ?

GUREKIN HARREMANETAN SAR ZAITEZ
[edo kioskoari erran]

◦ +33 558 54 19 18

◦ zezangorri@gartesarea.net

◦ Xirika - Lizardia lan eremua - 64310 Senpere

KHALED RÄTARL, MOHAMED HAIMANE, SAIAD MALEK ETA OKACHA AZDINE ▶ ETORKINAK

IRATXE ETXEBESTE

Marokoarrak dira laurak; han jaio ziren orain urte batzuk. Tolosan daude egun, eta eskualdean geratzeko asmoa dute. Hemen bizi dira, hemen egiten dute lan eta hemen eraiki dute bizitza, edo horretarako bidean dira. Arrazoi ezberdinengatik heldu ziren hona, baina helburu bera dute denek. Khaled Rätal, Mohamed Haime, Saiad Malek eta Okacha Azdine ez dira beren jaioterrira itzuliko, ez bada oporretan. Etorkin izatea bera ez dute atzean uzterik; ordea, hori egin zuten pobrezia-rekin behinola. Hitzarekin egin dute solas Irazki elkarte kulturantzak antolatuta izan berri diren Tolosako II. Magrebeko Jardunaldiak aitzaki hartuta.

Orain urte batzuk heldu zine-ten eskualdera. Nolan?

O. A: Duela hiru urte iritsi nintzen Tolosara. Bidaiatzea gustuko dut. Espainiara joan nintzen lehenik; gustatu, eta Murcian jarri nintzen bizitzen, baina Euskal Herria ezagutzekoan hemen geratzea erabaki nuen, lana hemen aurkitu nuelako eta Tolosaldeko jendearekin hobeto sentitu nintzelako.

M. H: 1989an iritsi nintzen, herrialdez aldatzearen. Orduko egoera ez zen egungoa bezala. Aldatzen ari dira gauzak, herrialdeetako ordezkarien jarrrerak-eta. Gero maitemindu egin nintzen Tolosako emakume batekin, eta hona etorri nintzen bizitzera. Ondo sentitzen naiz hemen.

K. R: Ni naiz lauretatik hona azkena iritsi dena, eta arrazoi berregatik etorri nintzen: esperientzia berri bat bizitzeko eta beste bizimodu bat ezagutzeko. Amarozen bizi naiz orain.

S. M: Nik bost urte egin nituen Katalunian, eta hamar urte daramatzat Euskal Herrian. Nire emaztea hemengoa da, Tolosakoa. Bartzelona inguruko herri batean bizi nintzen, eta ez nuen bizitza soziala egiten; etorkinen kolektiboan baztertu egiten zuten han. Geto antzekoak sortzen dira hala, eta horrek ekartzen ditu arazoak.

Etorkinak izateagatik izan al duzue bada arazorik eskualdean?

S. M: Hemen ez dut esango arrazakeriarik ez dagoenik; jakina, denetik dago Tolosaldean ere, baina Euskal Herrian elkartasun handiagoa erakusten du jendeak, orohar, Espainian baino. Esate baterako, hemen askoz kooperazio proiektu gehiago daude, solidarioagoak zarete, nolabait esatearren.

M. H: Euskalduna hotzagoa da beste leku batzuetako jendearen aldean, baina behin konfiantza hartutakoan askoz ere



IRATXE ETXEBESTE

«Herrialde batera joatean garbi daukagu bertakoekin elkarbizi behar dugula»

«Gure ohiturak mantenduz, baina haienak errespetatuz» egiten da hori; haien egoeraz, eta orohar, etorkinek etorkin izateagatik dituzten arazoez aritu dira

eskuzabalagoa. Arrazakeria badago, kanpokoa eta barrukoa, baina, zorionez, ez dut gisa horretako arazorik izan jendearekin, herrialde batera joaten banaiz garbi dudalako hangoeekin elkarbizi behar dudala; nire ohiturak mantenduz, baina haienak errespetatuz eta konpartituz. Bestela ez dugu ezer egiten.

K. R: Askok gustatzen zait jendea ezagutzeko, besteen bizimodua nolakoa den jakitea, eta horrek badu zerikusia leku berri batera moldatzerakoan. Ez dakit horregatik izango den, baina arazorik ez dut izan.

O. A: Tolosaldean etorkinen kopurua ez da oso handia oraindik, eta horrek ere zerikusia izan dezake, agian.

Irazkiko kide zarete. Oraintxe

izan berri dira elkarte horrek antolatutako II. Magrebeko Jardunaldiak. Gisa horretako ekimenek balio al dute elkar-kidetza bultzatzeko?

Zalantzarik gabe. Etorkinak ez dakar soilik esku lana. Bere kultura, ohiturak eta historia ere ekartzen ditu, eta hori dena bertako jendearekin konpartitzea gustatzen zaigu. Urtean behin gure herikideekin elkar-teeak mesede egiten digu, gure musika, jakiak... hemengoekin konpartitzeko aukera izaten dugulako Festa edo ospakizun hori antolatzeak asko esan nahi du guretzat. Alde horretatik, lan handia egiten du Irazki elkarteak. Bigarren jardunaldiak izan dira hauek, eta aldaketa nabaria ikusi dugu lehenengo ediziotik hona. Adibidez, lehen

batzuk ez ziren ausartzen ezagunik ez zegoen taberna batean sartzen; alabaina, ekimen haien ostean etorkin batzuk hemengo koadrilekin hasi ziren ibiltzen.

Balantzea baikorra izango da orduan...

Oso Baina ez etorkinon bakarrik; gainerakoena ere bai. Irazki elkarteak ez dugu etorkinek bakarrik osatzen; Tolosaldeko jendea ere badago gurekin lanean ari dena. Jardunaldien helburu nagusia hori lortzea da: alegia, hango eta hemengo jendea elkarrekin bizitzea, eta hein batean lortzen da. Elkarrearen inguruan dabilen jendeak egiten duen lana eskertzekoa dela esan behar da, ildo horretatik. Nabari da hemengo jendeari erakarri

egiten diotela gisa honetako gaiak: inmigrazioak, mestizajeak... Gizarte abegitsua den seinale.

Liskarrak dauden lekuetan, zein da arazoa bata bestea-rekin bizi ezin izateko?

Elkarbizitzeko arazo nagusia ezjakintasuna da. Albokoaren ohiturak ezagutu ezean muga modukoa duzu aurrean. Jardunaldi horiek oso ondo daude bata bestea-rengandik ikasteko, eta, era berean, elkar ezagutzeko. Lagunak egiten ditugu horrela, eta bi aldeak aberrastu egiten dira.

Zer esan etorkinak «integratu nahi ez» duela uste duenari? Oker dagoela. Hala ere, ez dugu oso gogoko integrazio hitza; elkarbizitza nahiago.

Orain hilabete piztu zen ezta-

baida hedabideetan Ceuta eta Melillako hesien inguruan gertatzen ari denaz. Espainiako eta Marokoko estatuen jarrazeraz zer iritzi duzue?

Urte asko daramatzate Marokori jarrera zorrotza izan dezan eskatzen. Espainiako Gobernuak, berriz, Europa presionatuz eman nahi dio irtenbidea arazoari. Marokoko hesi gehiago, radar gehiago jartzeko dirua eskatuz. Bitartean, liskarrek iraun egiten dute.

Ehunka etorkin utzi ditu Marokok basamortuan; tartean, zaurituak eta adin txikikoak. Gosez eta egarriz hil dira batzuk Sahara erdian. Zer esan daiteke horren harira?

Egoera dramatiko da, beldurgarria. Marokoko Gobernuak hesiak gaintzeko ahaleginen aurrean nola erreakzionatu duen ikusteak asko eragiten digu guri. Urteak daramatzagu entzuten Europako agintariak Marokori eskatzen ari direla zerbaite egin dezan, arazo horri irtenbidea eman behar zaiola, baina ez dute ezer egiten ez batetik eta ez bestetik.

Etorkin zaretan aldetik, nola ikusten duzue han gertatzen ari dena?

Afrikarrak zaborra balira bezala sartzen ari dira autobusetan basamortura eramateko; irudi horiek eguneroko ikus daitezke hedabideetan. Hona etorri nahi dutenak arrazoiz batzugaratik etortzen dira: gosea, gerra, politikak... Haiek duten irtenbide bakarra ihes egitea da, ahal duten neurrian bizitza bilatzea. Gu hona etorri gineanean ez zeuden hainbeste arazo: bisadorki ez zegoen, adibidez. Irudi horiek ikustean zera pentsatzen dugu: zer ari da gertatzen? Afrikatik, esate baterako, Senegaleetik datorrenak sei hilabete pasatzen ditu pateran Tangerrera iritsi arte. Bertan bi urtez egoten dira, komertzioak-eta sortuz, biziz... Eta aukera dutenean alde egiten saiatzen dira. Kontua da azken batean gizon-emakume horiek Europan ikusten dutela beren etorkizuna.

Baina Espainiaren menpeko kolonietan sartzen ahalegintzen direnek sei bat metroko hesia aurtitzen dute bidean. Hainbat eta hainbat lagun zauritu dira hesiaren gainetik igarotzeko saiotaen. Baita Es-

Hesiak, hausnarketarako

Irazki elkarteak antolatuta, Tolosako II. Magrebeko Jardunaldiak egin zituzten joan den astean, eta jardunaldien baitako ekitaldietako bat izan zen Ceuta eta Melillako hesiari buruzko kale erakusketa. Marokoko eta Espainiako gobernuek hara heltzen diren etorkinekin zer egiten duten jakiteko aukera izan zuten herritarrek lehengo larumbatean.

Haien herrialdetik ihes eginenez Europara joatea amets duten ehunka lagun baten patua da heriotza; basamortuan barna milaka kilometro oinez zehar katzen dutenena bezala, Gibraltaroko itsasartea eta Mediterraneoa ontzi xumeetan zeharkatzen ahalegintzen dire-



Ceuta eta Melillako hesien erakusketa, Trianguloan. iriGO TERRADILLOS

rena. Mugarik Gabeko Medikuek datu latzak eman dituzte Ceuta eta Melillako hesia gaintzeko saiakera egin duten

etorkinen inguruan: torturak, hilketak... Hala ere, 12.000 lagunek egin dute aurten saiakera. 55.000 izan ziren iaiz. ◀

painiako eta Marokoko se-gurtasun indarren oldarraldien ondorioz ere.

Izugarrria da ikustea zer baldintzatan ailegatzen diren hesi ingurueta. Bizitza oso gogorra da, eta urteen poderioz ikus dezakezu guztia irteerarik gabeko tunela dela. Lanik ez badago, zer egin behar dute? Hangoek pentsatzen dute: hau Europara joan, eta auto batekin itzultzen bada, zergatik nik ez dut egingo? Bizitza arriskatu arte saiatzen dira batzuk.

Mendebaldeko gizartearen benetako irudia islatzen al zaie?

Guk esaten diegu hemen ere gogorra dela bizitza, ez dela dena zoragarria. 06:00etan jai ki eta 17:30ak arte ez garelako etxera itzultzen, gauzak lortze ko lan egin behar dela gogotik, ez dela dena hain erraza.

Eta orduan?

Kontua da jende askok ez duela lanik, ikasketak dituen jende asko langabezia dagoela. Zer egin behar dute, hortaz? Bada ahal duten moduan bizitza bilatu, nahiz eta herrialdetik ihes egin ez izan. Horregatik nahi du jendeak Europara etorri. Han dirudunak oso dirudunak dira, eta pobreak, berriz, oso pobreak. Hori ulertu egin behar da.

Inmigratio fenomenoaren deitzen dietena ez da berria...

Itsasoa eta basamortua dira Marokoko mugak. 80. hamarkada amaieran hasi zen patera bidezko inmigratioa, eta ha-

rrezkero mila era asmatu dituzte mugak pasatzeko. Orain hesien gaiarekin gabilta. Hurrena beste ibilbide bat bilatuko dute, eta gauza bera egin.

Deportazioek galaraziko al dituzte etorkinekin hesiak gaintzeko egiten dituzten ahaleginak?

Deportazioek ez dute arazoa konponduko.

Hildakoak, zaurituak... Giza eskubideak babesten dituzten hainbat erakunde salatu dute etorkinen egoera.

Giza eskubideak etengabe urratzen dira. Hantxak zauriz beteta dituztela iristen dira hesi ingurueta mila etorkin, denbora luzean ibilian egon direlako. Gero, gainera, atxilotuz gero tratatu txarrak ematen dizkiete. Hori onartezina da; horrek ez du azalpenik. Ez dakigu zer ari den gertatzen. Zerbait aldatzen ari da, eta ez dakigu zer. Egiaren ordua iristen ari gara.

Behin-behinean Hartzeko Zentroan 512 etorkinentzako lekua dago; bikoitza omen da orain han daudenen kopurua. Sentsazioa dugu uean-ueko irtenbideak ematen zaizkiela etorkinei. Esaerak dioen bezala, 'ez nazazu arraina eman, erakutsiezadazu arrantza egiten'.

Zein da, zuen ustez, egoera horri eman dakekeen irtenbidea?

Guk ulertzen dugu erregulazioa ez dela bidea hori guztia

konpontzeko, bestela beste etorkin batzuk etorriko direlako eta bukaerarik gabeko zurrunbiloan sartzeko arriskua du horrek. Kooperazio politika serio bat behar da. Adibidez, Afrikan herriak eta herriak ari dira desagertzen HIESA dela eta. Ez da harriztekoa, beraz, jende horrek herrialde asko oinez zeharkatzea hona iristeko. Kanpo zorra ezabatzea izango litzateke irtenbideetako bat. Ez dakigu.

Eta Frantzia gertatzen ari denari buruz, zer irakurketa egiten duzue?

Ekarki Argeliatik, Marokotik jendea hona lanera eta tratatu horrela, zaborra balira bezala... Frantzia gertatzen ari dena hemen ere gertatuko da hemendik 30 urtera. Bistakoa da. Jende hori han jaio, bizi da, eta orain hori eskatzen du: non dira nire eskubideak? Ni ez al naiz hemengo? Frantziako Inmigratio Ereduk huts egin du nabarmen. Orainxe jarri dute indarrean lege bat lanera aurkezteko kurrikulumean argazkia jarri beharrik ez dagoela, frantziarra edo jatorri arabiarrekoa zaren atzemateko aukerarik ez izateko. Zure izena Mohamed baldin bada argi dago, ordea... Ez dago politika serioarik. Jatorri afrikarrek jendea fiatzekoa ez dela eta gisa horretako usteak dauden bitartean ez dago ezer egiterik. Estatuak ez dituzte irtenbide egoiak ematen.

TOLOSA ▶

Santa Zezilia Eguneko kontzertua gaurkoan

Udal Txistulari Banda eta Tolosako Musika Banda ariko dira eguerdian elkarrekin

I. ETXEBESTE

Santa Zezilia Eguneko kontzertua eskainiko dute Tolosako Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak gaur eguerdian Musika Eskolako aretoan; 12:30ean hasiko da kontzertua, eta hainbat obra interpretatuko dituzte. Txistulariek *Biribilketa*, *Alborada* eta *Kristalezko perlat* piezak joko dituzte, eta Bandak Francoren *Lau urtarok* eta Rossinioren *Semiramis*. Aipatzekoa da Musika Bandak lehendabiziko eskainiko duela gaurkoan Abba Run Sbrests-en *Abba gold* obra.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228

- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Germikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinika 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leizaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KHALED RÄTAL ETORKINA

«Etorkinak ez dakar esku lana soilik; bere kultura eta ohiturak ere ekartzen ditu bertako jendearekin konpartitu ahal izateko»

SAIAD MALEK ETORKINA

«Ez dugu oso gogoko integratio hitza, nahiago elkarbizitza; etorkinak elkarbizi nahi ez duela uste duena oker dago»

MOHAMED HAIME ETORKINA

«80. hamarkadan sortu zen patera bidezko inmigratioa; harrezkero mila era asmatu dituzte mugak pasatzeko»

OKACHA AZDINE ETORKINA

«Afrikarrak zaborra balira bezala sartzen ari dira autobusetan basamortura eramateko; zer ari da gertatzen?»

BABARRUN ASTEA ▶

Babarrunak, bor-bor

Beste behin ere Tolosako Babarrunik hoberenak Albizturren direla frogatu da; Alberto Labakaren uzta izan da txapelduen bai eltzean eta baita enkantean ere: 1.700 euro jaso ditu Afrikako Malira bidaltzeko



Babarrun lehiaketa. Alberto Labakak irabazi zuen Babarrun Lehiaketa. JAIONE ASTIBIA



Pintxoena. Pintxorik goxoenen egileak, sariekkin. J. A.

N. URBIZU - I. ASENSIO - J. ASTIBIA

Goiz osoan zehar, eguraldi bikaina lagun, kaleko giro ezin hobeia izan zen atzokoan: dultzaineroak kaleak musikaz alaitzen, Alde Zaharrean zehar dantzari arin-arin erraldoiak, buruhandiak edozeini ultzika, bertso prestatuak, eta, nola ez, Trianguloan, Babarrun Astearen protagonista nagusia: Tolosako Babarrun preziatua barra-barra, alde guztietan.

Eguerdia aldera asetuzko goiz guztian zehar jakinmina eragin zuen afera: XVIII. Tolosako Babarrunaren Ekoizle Lehiaketaren irabazlea Alberto Labaka izan zen; berak eskuratu zuen aurtengo txapela. Juan Garmendia eta Xabier Goikoetxea izan ziren bigarren eta hirugarren lekuak lortu zituzten saridunak. Hirurak Albizturkoak, «munduko babarrunik hoberenaren kabia», han adierazi zutenaren arabera, aurtengo hirukote irabazleari erreparatuz gero, behinik behin.



Enkantea. 1.700euroko elkartasun seinalea, Afrikara. J. ASTIBIA

Hori baino lehen, goizeko zortzietarako hasiak ziren babarrunak prestatzen, ordea, herriko hainbat sukaldari: 19 lehiakidek aurkeztutako aleak hartu, eta ura eta gatzarekin soil-soilik egosi zituzten ezariz, kazuela banatan; sukaldariz, kritikiko gastronomikoz eta gozogilez osatutako 7 laguneko mahaiak eman zuten

epaia. Aurtengo banabarra «azal gogor samarrekoa» omen da, «udako lehorte aldieren ondorioz», azaldu zuten, eta «ongi egosita ere, halako lakztasun bat» nabaritzen omen da aho-sapaian. Baina, hala ere, aurtengo Tolosako babarrun uzta «eder askoa» dela adierazi zuten.

Epaia-mahai lanean ari zen bertan dastaketa egiteko aukera izan zuen nahi zuen guz-



Sukaldea. Babarrun pil-pil. J. A.

tiak, Tolosako Babarrunaren Kofradiakoek, kasu honetan «behar den bezala egositakoak», babarrunak banatu baitzituzten herritarren artean.

Goizean goizetik ere, larunbateroko ohiko azokaz gain, babarrunaren inguruko azoka berezia egin zuten atzokoan han bertan ezarritako karpapean. Bertako nahiz inguruko herrietako nekazariez gain, batez ere «sakramentuak» salgai zituzten postuak izan ziren nagusi: barazkiak, odolkiak, tripotxak, txerrikia, orohar, eta Ibarrako piperrak ezin falta, noski. Txukun aski aurkeztutako hainbat eta hainbat etxeko produktu, guztiak babarrunen osagarri egoki izan daitezkeenak. Ondoz betetako mahai bat ere izan zen. Zeinek esan ez litekeela osagarri ona izan?

Eguerdietari sari banaketeekin eman zioten bukaera. Babarrun hoberenei emandako ez gain, ordea, babarrun pin-

SAILKAPENAK ▶

BABARRUN LEHIAKETA

1. Alberto Labaka (Albiztur)
2. Juan Ugartemendia (Albiztur)
3. Xabier Goikoetxea (Albiztur)

BABARRUN PINTXO LEHIAKETA

1. Hernalde jatetxea
2. Amets taberna
3. Ordizia taberna

TXAPELA NORK ONDOEN JANTZI LEHIAKETA

Gizonezkoak

- | | |
|-----------------------|------------|
| 1. Xabier Garikano | 25.5 puntu |
| 2. Pablo Azurza | 25 puntu |
| 3. Pablo Agirrezabala | 24 puntu |

Emakumezkoak

- | | |
|---------------------|----------|
| 1. Desiree Gonzalez | 22 puntu |
| 2. Maite Sanchez | 21 puntu |
| 3. Marisol Iraeta | 18 puntu |

Elkartekoak

- | | |
|--------------------|------------|
| 1. Pedro Juan Oria | 22.5 puntu |
| 2. Antonio Merino | 22.5 puntu |

Portaide zaharrena

- | | |
|------------------------------|-------|
| Florentino Gastesi (87 urte) | 18 p. |
|------------------------------|-------|

Portaide gazteena

- | | |
|-------------------------|-------|
| Lucia Aranzabe (3 urte) | 10 p. |
|-------------------------|-------|

EGITARUA ▶

GAUR

08:00. XIX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa ferialekuan.

10:30. VIII. Artzain Txakur Txapelketa, Iurramendiko belazeetan.

12:00. Urrezko Harrijasotzaile eta Aizkolarien Eguna, Beotibar pilotalekuan.

13:00. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa sari banaketa, Ferialekuan.

14:30. Herri bazkaria, Ferialekuan. Bertan dastatzeke izango dira Iberiar zerriak eta Tolosako babarrunak, aza, odolki, urdai eta Ibarrako Txumitxa piperrekin. Ezeiza etxeko postrea izango da ondoren, ardo beltza, gorria eta ura edateko, eta amaitzeko kafea, likorea eta purua. Bazkariaren prezioa 20 eurokoa da eta txartelak goizeko 10:00etatik aurrera daude salgai Gure-Kaiola Elkartearen.

txorik hoberenentzat ere izan zen zer banatu: Hernalde jatetxeak irabazi zuen lehena; Amets tabernak, bigarrena; eta Ordizia tabernak, hirugarrena.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai, lotarako prestatua. Fiat Scudo 2.0 JTD, 145.000 kilometro.

Telefonoa: 629 87 14 09.

Autoa. Citroen Xsara 1.9

Diesel, 2001. urtekoa. 78.500 kilometro. Egoera onean. Beti garajean.

Telefonoa: 653 740 511.



Azoka berezia. Banabarra eta bere ohiko laguntzaileak izan ziren produktu nagusiak. J. ASTIBIA



Txapel lehiaketa. Garikano txapelduna —ezkerrean—, eta Azurza bigarren saritua, aitonaarekin. I. ASENSIO



Kaleko giroa. Kalea, musikaz eta erraldoien dantzaz alaitua. I. ASENSIO

Egunari elkartasun ukitutua ere eman zioten. Aurtengo Babarrun Lehiaketako irabaztun izendatu zuten Labakaren babarrun zakutxo bat, 3 kilokoak, enkantera atera eta 1.700 eurotan saldu baitzen han bertan, hainbaten arteko puja izanda, Donostiako Don Serapio etxeak eramanez «altxorra». Lortu-

tako dirutza hori, Afrikako Malirako elkartasun laguntza modura igorriko dutela eman zuten jakitera.

Txapela dotore jantzita

Atzokoan, bestalde, Txinparta elkarteko Txapela Nork Ondoen Jantzi VII. Lehiaketa ikuste-

ko parada ere izan zen. Bertara txapeladun dezente azaldu zen, adin eta herri ezberdinetakoak, emakumeak, gizonak, haurrak, jadanik buruan txapelaren arrastoa zutenak eta baita ez zutenak ere.

Epaille lanetan Txinparta elkarteko bazkideak aritu ziren, besteak beste: bost osotara.

Arreta handiz begiratu zituzten partaideen desfile landuak eta, hain zuzen ere, horretan zetzan lehiaketak: txapeladunak epaimahiaren aurrean txapela buruan agertu behar zuen eta horren aurrean kendu eta berriz ere jantzi, inongo tresna berezirik erabili gabe. Askok naturaltasunez egiten zuten; beste

batzuek era dotorean... Emaitzetako puntuaketa ikus daitekeen moduan, nahiko borrokatua izan zen lehia. Azkenik, garaileak, 75 urteko Xabier Garikanok, 25 puntu eta erdi lortu zituen; bere jarraitzaile gertukoena, 12 urteko Pablo Azurza gazteak, 25 lortzen zituen artean.

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 20a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK
udalak: Alaitzola, Aduna, Abiztur, Alege, Alkoa, Altoa, Ametza, Aneto, Araso, Araso, Balaran, Belantza, Berastegi, Berri, Eizuan, Hernadi, Itziar, Itziar, Labiano, Lizartza, Oñate, Oñate, Oñate, Tolosa, Villabona, Zizaki
besterik: Leizaldea Euskara Batordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena **13** hotzena **11**

goizez

arratsaldez

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. EHNA tramitazioa udaletxean 11:00etatik 14:00etara. Arratsaldean, Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldia, barrikotea, gaztain jatea, taloak...

Baliarrain. Kultur Elejiran, Jubilatuen Eguna: meza 11:15ean; ondoren hamaiketako; 13:00etan aurtengo jaietako bideoa eta ondoren bazkaria.

Berastegi. Kultur asteburuan, goizetik mendi ibilaldia Mustar zaharreen barrena eta arratsaldean mus txapelketa herrikoi-azkarra Urepele Biltokian.

Ikaztegieta. Kultur Astearren barruan, herri kroasa 10:00etan eta *Bakartxoren zapatikak* botxongilo emanaldia 18:00etan kiroldegiko gimnasioan.

Tolosa. Santa Zezilia Eguneko kontzertua, Tolosako Musika Bandaren eta Udal Txistulari Bandaren eskutik, Musika Eskolako areto nagusian, 12:30ean.

Tolosa. Tolosako Babarrunaren XIX. Lehiaketa Gastronomikoa Ferialekuan goiz osoan. 14:30ean, herri bazkaria. Prezioa: 20 euro.

Tolosa. Urrezko aizkolari eta harri-jasotzaile azkarrenaren saria Beotibar pilotalekuan 12:00etan. 50 aizkolari eta 15 harri-jasotzaileekin.

Tolosa. Kirol egokituen erakustaldia, goiz osoan, Usabal kiroldegian. Futbola, saskibaloia, mahai tenisa, slaloma, boccia, areto dantzak... Itsuek, elbarriek eta bestelako ezinduek erakutsiko dituzte.

Tolosa. VII. Artzain Txakur Txapelketa, lurreamendiko beazeetan, 10:30ean.

Villabona. Amasako XIII. Mendiatioia, 11:00etan. Ondoren, Zeanuriko Miguel Angel Goioaga eta Amasako Mikel Arretxe ingudean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Aukerak badaude»

VILLABONA ▶ Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak hitzaldia eskaini zuen herenegun Gurea zineman; HITZArekin mintzatu zen aurretik

I. ETXEBESTE

Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaile Villabona Gurea zineman izan zen herenegun iluntzean. *Orain herria, orain bakea* prozesuaz aritzeko. Hitzaldia eman aurretik HITZArekin egin zuen solas Anoetako proposamenari eta beste gai batzuei buruz. Geroago bildu zen gainerako komunikabideekin.

Anoetako proposamenak urtebete egin duenean, ezker abertzaleak balorazio «oso baikorra» egiten duela zioen: «12 hilabetetan egoera, poliki-poliki asko aldatu da; batik bat une honetan, ia eragile guztiek konpartitzen dute Anoetan aurkezutako metodoa. Bestalde, aldaketarako une orotan badira kezagarriak gerta daitezkeen datuak eta baita itxaropenerako datuak ere. Guk kezka sortzeko datuak ere begibistan ikusten ditugu».

Bi aipamen egin zituen Otegi horren inguruan. Batetik, «[Espainiako eta Frantziako] Estatuek errepresio estrategia mantentzen dutela», eta, bestetik, «herri honetan ez daudela uxatuta PNVren aldetik egon daitezkeen tentaldiak errefor-



Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaile, herenegun, Villabonan. i. g.

ma estatutario baten bitartez gatazka bere horretan uzteko». Alderdien artean osatzeaz dagoen mahaia izan zuen jarrera hizpide Batasuneko eldunak: «Guk eztabaida emate-rakoan ez dugu eperik jarri nahi; zer da epe motza eta epe ertaina? Guk gauza bat bakarra dakigu eta da bi mende daramatzagula gutxienez gataz-

kan, eta bi astetan ez dela bi mendetako gatazka konpontzen; dena den, Batasunak publikoki esan du komunikazio bide guztiak irekiak dituela eta komunikazio bide horiek erabili nahi ditugula oinarri sendoak finkatu ahal izateko mahaia hori osatzen denerako».

Horren harira, gizartearen «antsietate moduko bat» naba-

ri dela iritzi zion Otegi. «Nik askotan aipatu izan dut gizartearen sentipen hori egotea zintzoa dela; gatazkan bizi den herri bat antsietatearekin bizitzeko soluzioaren espektatiba badagoela esan nahi duelako, baina ikusten dugu antsietate hori alderdi batzuetako bozeramaile batzuk eta komunikabide zenbaitek areagotu egiten dutela. Orain gutxi ikusi dugu zer motatako zurrumurruak zabaldu dituzten su eten baten inguruan Anoetako proposamenak urtebete betetzen duenean. Guk herri honekin sentimendu hori konpartitu egiten dugu, eta geuk ere gauzak ahalik eta azkarren konpondu nahi ditugu, baina argi daukagu konponbidea lortzeko oso txukun, serio eta agian poliki ere egin beharko ditugula gauzak», adierazi zuen.

Oraingoa garrantzia handiko unea dela esanez, «aurrerantzean izango diren gezur eta intoxikazio-manipulazioen erreakzio betiere ezker abertzaleari sinesteko» eskatu zion, azkenik, Arnaldo Otegi Tolosaldeko herritarrei. «Aukerak badaude, baita arriskuak ere; ez dago ez gehiago ez gutxiago. Hortxe gaude».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN, OIER!

Ahal duzuen ongien ospatu eguna. Jo ta ke, irabazi arte. Muxu goxo-goxoak guapo! Euskal Herriitik, sarginak.



URTE ASKOAN
Ekaitz Monreal Mitxelena (Tolosa).
Bihar urtebete. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Ane Iturrioz Irigoien (Tolosa).
Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.

HITZA, zorion aguraren tarte
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoiztetara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!



NEREA LIZARTZA

BEHARREZKOA BESTERIK EZ

Egun diseinatzen diren etxeak gero eta txikiagoak direnez, apainketek espaziora mugatu behar dute; beraz, atonketak beharretara egokitzea komeni da

GUSTU GUZTIETARA EGOKITUAK

Altzarien eskaintza ikaragarria da; saltzaileek bezeroen gustu eta poltsikoetara egokitu behar izaten dute; hori lortzeko, denek eskaintzen dituzten zerbitzuak gero eta oporagoak dira

Etxea atontzeko unea tristen denean zalantzak izaten dira nagusi: batzuek, etxeari siktua modernoa eman nahi izaten diote. freskotasunarekin. Beste batzuek, berriz, etxe rustikoaren aldeko apustua egiten dute. Honek lehen bogradian eskaintzen duen epeltasunarekin. Dena den, altzariak, jadarik, gustu eta kolore guztietara egokituakoa daude: beraz, norberaren ideietara ederki doitzen dira.

Lehen pausok

Batzuek etxe osoa berritzeko lanak egiten dituzte: beste batzuek, berriz, txoko bakarkat berritzen dute. Nolanahi ere, gaur egungo altzari denek bi ideiak dituzten bezeroen nahiak asetzeko daude egituratuak. Izan ere, altzari eskaintza oparua izateaz gain, etxe osoa berritzeko beharrezkoak diren obrak egiteaz ere erak arduratzen dira normalean. Hori dela eta, obra egiteko beharrezkoak diren planoak ere egiten dituzte: betere bezeroaren gurestara ahal den hobekien moldatuz. Horren gutxiaren aurretik, aurrekontua konpromez hartzeko datua da, horren arabera diseinua egiteko baliatze altzari denetan. Haatik, bezeroen nahiak praktikotasunera egokitzea



Logelari arloan, altzari modernoak nagusitzen ari diren arren, denetik ari da saltzeri. NEREA LOMETA

ere tokatzen zala altzari dendetako saltzaileek; izan ere, deserosoa gertatu daitekeena eroso izan dutelearen diseinura moldatzen saiatzen dira. Edonola ere, azken hitza bezeroarena da. Oso garrantzitsua da, baita ere, bezeroak lehen pauso bezala, etxeari eman nahi dion ukitua garbi izatea; modernoa jarri nahi duen edo zahar txura eman nahi dion, hain zuzen ere, horren arabera zailago izango baita etxe osorako txura.

Egongela

Gero eta garrantzia handiagoa ematen zail egongelari, etxeko banaketa egitekoan lekurik handiena hori eskaintzeko joera baitago. Dena den, altzari gutxiok egongelak dira gehien jartzen direnak. Atzera gelditu dira sabairano sisten diren altzari altzak; parterren koloreaz gozaten uzten duten metro ingurukoak dira nagusi. Egongela ez da gehiegi betetzen, huts txurra ematea du gustuak jendeak. Teletista jartzeko tokiak, traste batzuk kabitzen diren armairu (ahal bada kristal batuekin) eta liburutegi txiki bat nahikoa izan ohi da. Bestalde, sukaldean jarri ezan, jantziak ere hemen jarriko da, mahaia hegaldun bat eta lau salki ingururak.

Logelak

Denetik saltzen den arren, modernoa ari da nagusitzen zahar txurako altzarien gainetik. Orokorrean, altzari modernoek diseinu aldetik aukera zabalgia eskaintzen dute logeletarako. Bi esleiotan, beharrezkoak bostetik ez diren altzariak jartzea aholkatzen dute, hala nola ohea, gau-mahaia, armairua (normalean ale trisistaltuekin) eta komoda nahikoak izan ohi dira bikoteen logela osatzeko. Dena den, nahiz eta gela txiki izan, buruan kontuak eta jantziak jartzen duten bikoteak gero eta gehiago dira. Kasu hauetan, plano batzuk egitea komeni da bakoitzari nola daitezkeen arazozkoak. Haurren logeletan, oster, ahalik eta espazio txikienean ahalik eta guzua gehien jartzen saiatzen dira, beraz, obratzeak dira gehien jartzen direnak. Haatik, nahikoa espazio izanez gero, ohe handi samar bat ez da inolaz soberan izango. Hala ere, diote, behinik behin, dekoreaz arduratu.

EROSOTASUNA

Sarritan zaila da erositasuna eta edertasuna uztartzea; garrantzitsuen, erositasuna da

EGONGELA

Etxearen diseinua egitekoan, gero eta garrantzia handiagoa ematen zail egongelari, leku handiena eskainiz

Sukaldea

Sukaldeetan, sotik, sukalde zerbitzua egiteko beharrezkoak diren altzariak jartzeko tentsioa gero eta handiagoa da. Izan ere, gero eta etxe txikiagoak izaki, jendeak nahiago izaten du jantzi egongelak jartzea. Beraz, beharrezkoak diren etxetresna elektrikoak sartzeko tokiak eskaintzen duten altzariak, armairu gutxi batzuekin, nahikoak izan ohi dira. Estalioari dagokionez, denetik saltzen da, bai sukalde modernoak eta baita ere para batetako txurra duten sukaldeak. Hori, aurrez etxeari ematea erabaki den kutsuaren arabera izango da.

Bainugela

Etxeen diseinua egitekoan, gero eta garrantzia gutxiago ematen zail bainugelari. Zailtzarrik handiena bainuontzia edo dutxa jartzerakoan sortu ohi da. Helduek dutxa nahiago izaten dute; gasteek, berriz, bainuontzia. Edonola ere, bieti beharrezko lekua eskaintzen behar da. Dena den, altzariak eman nahi zailen estalioaren arabera izan ohi dira; gehiegi ez betetzea komeni da, kaxoi batzuk eta dutxan bertan xaboiak eta bestelakoak gordetzeko apal batzuk jartzea nahikoa da.



Sukaldeetarako altzari modularak egin ohi dituzte, neurria, N.L.



Etxean bako erosoak eta bereziak sortzeko aukera dago. NEREA LOMETA



Tokia aprobekatzeko, ohatzek esko eskaintzen dira. NEREA LOMETA

XABIER MENDIA ▶ BEDIA ALTZARIARAKO ARDURADUNA

«Egun, pisuan diru asko gastatzen denez, altzari merkeak eskatzen dira»



NEREA LOMETA

Vilabona kapoaldean du dena Xabier Mendiak. Denetarik saltzen dute, hala nola, sukaldeak atontzeko altzariak, logelak, egongelak... Dena den, altzari rustikoetan dute aukerarik zabalena. Mexikora joan, eta handik ekartzen dituzte katalina onak eta prezio nahiko merkeak.

Zeren bila etortzen da bezeroak?

Gazteak etortzen zaizkigu gehienbat: etxea erosten diru asko gastatzen dutenez, altzari merkeak nahi izaten dituzte. Guk Mexikotik ekartzen ditugunez, modu onean saltzen ditugu. Dena den, normalean gure dendara etortzen denak badakiz zer topatuho duen. Ideia jakin batekin etortzen al dira bezeroak? Denetik dago, batzuek etxe

osoa berritzeko eskatzen dituzte, beraz, txoko bat orientatzeko planoak egin, eta guztia guk lotzen diegu; iturginarekin, ingelberarekin eta abarrek kontaktuan jartzen gara eta obra guztia egiteaz gaurdaritzen gara. Beste bezero batzuk, berriz, ideia konkreturik gabe etortzen dira, orduan, etxearen edo gelaren egitura aztertuz, eta egon daitezkeen aukerak ematen dizkiegu.

Ba al dago alderik bezero gasteen edo helduen eskaintza?

Bai, gazteak ideia konkretuagoekin etortzen dira, badakite gutxi gorabehera zer nahi duten. Gainera, altzariak hautatzeko unean asurtuak dira, ez dute aurreiritirik. Helduak, berriz, zer erakutsiko zail gertzen dira.

in arkitektoak & ingeniariak, inbentarioak & proiektuak, gremioen koordinazioa, inbentarioak ondo pasat!

TURBIA AL
• Sukaldeko altzari eta armairuen fabrikazio propioa
• Beharrezkoak, etxek, kanpalekuak, egoitza-erakundeak
• Gremioen koordinazioa
San Blas auzua, 57 • TOLOSA
Tel.: 943 67 22 11 • Fax: 943 67 41 29

POXPOLIN
• Enmarkazioa mota guztietan (gure tailerria)
• Gure dekarotzaileen aholkularitza bezaroren etxean
• Opari aukera handia
www.poxpolin.com
San Francisco, 21 • 20400 TOLOSA • T. 943 655 355
Uzturre plaza, 7 • 20160 LASARTE OÑA • T. 943 363 072
poxpolin@clientes.euskaltel.es

BEDIA ALTZARI RUSTIKOA
• Horma-armairuak
• Altzari rustikoa
• Jubenila, koloniala eta altzari gordina
• Altzariak neurritan
• Koltxoak, somierak, kanapeak
• Sofak
• Aurrekontuak konpromezurik gabe
Lizartze industrialekua, E. JANTZIEN K. 10. 20140 ANDOAIN
Tel. fax: 943 30 43 82
www.bedia.com

ORIA S.L.
BEROGAILU, GAS ETA ITURGINTZA INSTALAZIOAK
ZERAMIKA-BAINUA
Euskalerria, 4 beheko
Tel.: 943 67 32 89 • Fax: 943 69 71 20
20400 IBARRA (Gipuzkoa)

nahia.
BARNEARKITEKTURA
Lizartze Industrialekua, 2
20140 Andoain
Tel.: + 034 943 654 520 • Fax: + 034 943 651 537
nahia@barnearkitektura@euskaltel.net
www.nahia.net

ikus-onetsitako proiektuak berrikuntzak gremioen koordinazioa estaldurak altzariak bulagoak argiak osagarriak

OSAGARRIAK, ALTZARIEI EGOKITUAK

Altzariak hautatu ostean, osagarriekin atontzeko unea izaten da

Behin altzariak aukeratuta, horiei egokituko zaizkien osagarriak jarri behar dira etxea behar bezala atonduta utzi nahi bada, behintzat. Atontzeko baliabideen aukera oso oparoa den arren, garrantzitsuenak pinturaren kolorea, lanparak, alfonbrak eta koadroak izan ohi dira. Villabonako Bedia altzariak-eko arduradunarekin eta Tolosako Nahia barnearkitekura dendaren jabearekin hitz egin du HITZAK: egun dau den tendentzien eta atontzeko joeren gainean mintzatu dira, beste hainbat gairen artean.

Pareten koloreak

Altzari modernoak jartzen badira, paretak eta sabaia kolore tristeekin margotzea da komenigarriena; modu honetan, altzariak hartzen dute garrantzia eta etxeari itxura serioa eta freskoa ematen zaio. Halaxe adierazi du Tolosako Nahia barnearkitekura dendako arduradun Jon Ander Kerejetak.

JON ANDER KEREJETA NAHIA BARNEARKITEKTURA

«Toki konkretuetan jartzen dira sabaitik irteten diren lanparak; modan dira lurretik igotzen direnak»

«Altzari modernoekin paretak kolore tristeetan margotzen dira; itxura serioa eta freskoa ematen zaio»

Estilo honetan gehien erabiltzen diren koloreak beltza, granatea eta krema kolorea omen dira. Dena den, joera nagusia hori bada ere, bezero bakoitzak nahi duen kolorea hauta dezakeela gogorarazi dute adituek.

Bestalde, antzinako itxura duten altzariak jartzen badira etxean, paretak eta sabaia kolore biziz margotzea komeni da; horrela, altzariak askoz gehiago nabarmenduko dira eta etxeak itxura bizia hartuko du. Arlo honetan gehien erabiltzen diren koloreak fuksia, berde fuertea, urdin elektrikoa edota horia izan ohi dira.

Azkenaldian modan dago etxea kolore bakar batez pintatu beharrean, kolore asko erabiltzea. Altzari moten arabera, etxeak gela bakoitza kolore batez pintatu daiteke, edo, baita ere, gela bat pintatzeko kolore asko erabil daitezke; esaterako, paretak bakoitza kolore batez eta sabaia beste batez margotu daitezke.

Lanparak

Gero eta gutxiago dira sabaitik eskegita jartzen diren lanparak; orain, lurretik igotzen diren lanparek eskaintzen duten argi urria erabiltzen da etxeak argiztatzeko. Etxeari ematen zaion kutsuaren arabera lanparak jartzea komeni da, betiere paretan kolorea kontuan hartuz.

Dena den, sukaldeak, bainugelak eta jantzigelak bezalako leku konkretuetan sabaitik zintzilikatzen diren lanparak jartzea komeni da; izan ere, etxe-



Lanparak sabaitik zintzilikatuta jarri ordez, gero eta gehiago jartzen dira lurrean. NERIA LIZARTZA

ko gela hauetan sabaiko lanparek ematen duten argitasuna edukitzea eskertu egiten da. Badira, baina, paretetik eskegita jartzen diren lanparak ere; horiek gehien logeletan jartzen dira. Gau-mahaietako lanparak gela jarri den egituraren arabera izango dira; beti ere kontuan izanda gelaren jabearen gustuak.

Koadroak eta alfonbrak

Koadroak eta alfonbrak dira etxeari azken ukitua ematen diotenak. Koadroei dagokienez, normalean, altzari modernoak hautatu badira, marko iluna eta txikia jarri ohi zaiei koadroei. Altzari zaharrekin, berriz, markorik gabeko koadroak dira nagusi; mihisea margolan abstraktuekin, soilik.

Alfonbrei dagokienez, ostera, gustu guztietara eginak daude; batzuk merkeagoak eta beste batzuk garestieagoak, baina modeloak era guztietakoak. Dena den, etxea behar den bezala jarri ostean, hautatutako altzariekin eta koloreekin bat datozen alfonbrak jarri behar dira; beraz, ez da komeni etxe osoaren egitura jarri baino lehen alfonbrak erostea.



Altzari modernoekin paretak kolore tristez margotzen dira. N. L.



Etxeari ematen zaion ukituaren arabera lanparak jartzen dira. N. L.

MERKATOLOSA

- Koltxoiak eta Somierak
- Altzariak
- Logelak
- Osagarriak

...
Santa klara, 5 behea
Tel.: 943 67 47 81
20400 TOLOSA

YOSU THERMIK

POLIURETANO AROZTEGIA, PVC, ALUMINIOA

LEINOK, PERTSIANAK eta ARMARRIAK NEURRIRA

Rincilla kalea, 14 2da. Tel eta Fax: 943 67 34 69 20400 TOLOSA

ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Instal. Elektrikoak
- Aletzen automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika arribentzientzat instalazioak, etxebizitza, denda...

Lurte Auzoa, 4 - TOLOSA - TEL.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb. 13 - TEL.: 943 88 95 71 - BILBAO

MONTO Tindu Margoak, S.L.

Margoaren etxea

Oria kalea, 6 - behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 44 24 • Fax: 943 69 84 12
TINDUMARGOAK@terra.es